



NAVARRA SHORT ZINEMA”

Catálogo de cortometrajes | Film laburren katalogoa

CONVOCATORIA 2024
DEIALDIA 2024

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



NAVARRA SHORT ZINEMA”

Catálogo de cortometrajes | Film laburren katalogoa

DEIALDIA 2024

Honen bidez, deialdia zabaltzen da "Navarra Shortzinema: film laburren katalogoa"-ren (aurrerantzean, Navarra Shortzinema) 2023ko edizioan parte hartzeko, Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ikus-entzunezko Proiektu Estrategikoen eta Digitalen Atala antolatua / Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundea.

Navarra Shortzinemak deialdi honetan izena emateko azken egunaren aurreko hamabi hiletan zuzendari eta/edo ekoiztetxe nafarrek eginiko film laburrak aintzatets, susta eta zabal daitezzen du helburu.

Programa hau Nafarroako film labur onenak hautatzean datza, sektoreko jaialdi, azoka eta merkatu garrantzitsuenetan aurkezteko, eta Nafarroako Filmotekan (bereziki, Filmoteka Nafarroan programaren bidez), eta beste katalogo autonomiko batzuekin batera antolatutako ekitaldi profesionalak.

03” ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

03” FILM LABURREN BETEKIZUNAK

04” IZENA EMATEKO EPEA ETA DOKUMENTUAK

05” HAUTAKETA-PROZESUA ETA -IRIZPIDEAK

05” HAUTATUTAKO PROIEKTUEN BETEKIZUNAK

06” HAUTATUTAKO FILM LABURREI BURUZKO AZKEN XEDAPENAK

BETEKIZUNAK

Eskatzaileen betekizunak

Film laburra Navarra Shortzineman sartzeko eskatu ahalko dute aurkezten den ikus-entzunezko lanaren eskubideak dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek, baldin eta honako bi baldintza hauetako bat betetzen badute:

- Lana zuzentzen duena adinez nagusia da, nafarra da eta/edo Nafarroako edozein udalerritan erroldatuta dago, gutxienez 2023eko urtarrilaren 1etik.
- Lanaren ekoiztetxea (pertsona fisikoa edo juridikoa izan) ekoiztetxe independentea da, eta egoitza soziala eta egoitza fiskala Nafarroako Foru Komunitatean ditu. Koprodukzioak badira, ekoiztetxe nafarra izango da gehiengoa duen bazkidea.

Hala ere, jatorrizko bertsioa euskaraz duen film labur bat bada, edozein jatorritako lanak onartuko dira. Nafarroatik kanpoko eskatzaileen kasuan, lanak Nafarroarekin duen lotura egiaztatu beharko da, hurrengo oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

Film laburren betekizunak

Deialdira aurkezten diren film laburrek 30 minutuko edo gutxiagoko iraupena izango dute (kredituak barne), edozein generotakoak izan daitezke, edozein formatutan filmatuak izan daitezke eta 2023eko apirilaren 1etik 2024ko martxoaren 31era bitartean ekoitzi behar izan dira.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaz eta euskaraz egindako film laburrak aurkeztu ahalko dira.

Nafarroatik kanpoko produktore batek aurkezten dituen euskarazko film laburren kasuan, Nafarroarekin duen lotura egiaztatu beharko da, lanaren gaiari dagokionez edo Nafarroako lurraldearen presentziaren bidez.

Prozesua eta amaierako emaitza bateratzeko, Navarra Shortzinemak hautatutako film laburren itzulpenak eta azpigituluak kudeatu eta haien kostuak ordainduko ditu. Jatorrizko hizkuntza gaztelania duten film laburrak ingelesera itzuli eta azpigitulatuko dira. Jatorrizko hizkuntza euskara duten film laburrak ingelesera eta gaztelaniara itzuli eta azpigitulatuko dira. Film laburren batek azpigitulu horiek baditu aukeratuak izateko unean, Erkidegoko beste hizkuntza batera itzultzeko eta azpigituluak jartzeko aukera emango zaie.

Postprodukzio-fasean dauden film laburrak aurkez daitezke, betiere muntaia eta iraupena behin betikoak badira. Hautatuak izanez gero, pertsona edo erakunde arduradunek behin betiko kopia 2023ko abuztuaren 31 baino lehen aurkezteko konpromisoa hartzen dute.

Film laburren gaia librea da, baina ez da onartuko ez bideoklipik, ez publizitateko edo propaganda politikoko lanik, ez eta telesailen edo telebistako erreportajeen kapitulurik ere. Modu berean, baztertu egingo dira indarkeria bultzatzen duten proiektu guztiak, eduki arrazista edo sexista dutenak, hirugarren baten edozein eskubideren aurka egiten dutenak edo animaliak kaltetu edo gaizki tratatzen dituztenak. Materiala inskribatzen duena izango da haren edukiaren legezko arduraduna.

Film laburrek komertzialki estreinatu gabe egon behar dute, baina bai onartzen da jaialdi baten testuinguruan plataforma publikoetan zabaldu izanak. Katalogo honen eskumen-eremuko gehienez 25 jaialditan parte hartu duten film laburrak baino ez dira onartuko, eta eskaera egiteko unean egiaztatu beharko da hori. Nolanahi ere, estreinatzen diren film laburrei emango zaie lehentasuna.

Eskatzaile bakoitzak hiru film labur aurkez ditzake, gehienez, hautaketa-prozesurako, eta haietako bat aukeratu ahal izango da gehienez.

Film laburrak ezin dira Navarra Shortzinemaren parte izan dagoeneko banaketa autonomikoko beste katalogo batean badaude.

Komeni da film laburrak ICAAren kalifikazioa eskuratu izana.

IZENA EMATEKO EPEA ETA DOKUMENTUAK

Deialdi honetan obrak izena emateko epea 2024ko **apirilaren 10ean** hasiko da eta **maiatzaren 3n** amaituko da (bi datak barne).

Eskabideak bide telematikoz baino ezingo dira aurkeztu, culturanavarra.es webgunean deskargatu ahal izango den inprimaki baten bitartez. Inprimaki horrek honako eremu hauek izango ditu:

1. Film laburraren izenburua
2. Ekoizlea
3. Zuzendaritza
4. Gidoilaria
5. Proiektua zer fasetan dagoen (postprodukzioan, amaituta, estreinatuta)
6. Jaialdietako ibilbidea (aurkeztua, hautatua, saritua)
7. Film laburraren generoa (dokumentala, fikzioa, animazioa, esperimental)
8. Iraupena
9. Formatua
10. Jatorrizko hizkuntza
11. Erabilgarri dauden azpтитuluak
12. Sinopsia, gehienez 75 hitz;
13. Zuzendariaren biofilmografia
14. Harremanetarako datuak
15. Ikuskatzeko esteka eta dagozkion pasahitzak
16. Navarra Shortzinema programaren oinarrien onarpena.

Gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a)** Obra zuzentzen duena nafarra bada edo Nafarroako bizilaguna bada, NANaren fotokopia edo erroldatze-agiria.
- b)** Ekoiztetxea nafarra bada, NANaren edo pasaportearen (pertsone fisikoen kasuan) fotokopia; eraketa-kontratua edo -eskritura, IFK, ekoiztetxeak egoitza soziala eta fiskala Nafarroan dituela egiaztatzen duen agiria (pertsone juridikoen kasuan).
- c)** Koprodukzioak badira, koprodukzio-kontratuak edo ekoiztetxe nafarrak ekoizpenaren % 50 baino gehiago duela dioen adierazpen sinatua.
- d)** Nafarroatik kanpoko produktore batek aurkezten dituen euskarazko film laburren kasuan, film laburrak Nafarroarekin duen lotura egiaztatzen duen memoria.

Kasu guztietan:

- a)** Film laburra inskribatzen duen pertsonaren adierazpen sinatua, ekoizpen-data egiaztatuko duena.
- b)** ICAAren kalifikazioa, edukiz gero, eta nazionalitate-ziurtagiria.

Aurkeztutako eskabideak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu edo eskabidearekin batera nahitaezko dokumentazioa aurkezten ez bada, zuzentzeko eta/edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio interesdunari, zazpi egun naturaleko epea irekiko da, zuzentzeko errekerimendua jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Film laburraren arduradunak izango dira emandako datuen egiazkotasunaren erantzule, eta Navarra Shortzinemak berarentzat gordeko du informazioa isildu duten film laburrak baztertzeko eskubidea. Ez dira izapidetzeko onartuko ezarritako epetik kanpo aurkezten diren eskabideak.

Zalantzarik izanez gero, ikus-entzunezko proiektu estrategikoen eta digitalen atalarekin harremanetan jartzeko aukera egongo da, zinema@navarra.es helbidearen bidez.



HAUTAKETA-PROZESUA ETA -IRIZPIDEAK

2024ko Navarra Shortzinema katalogoan parte hartuko duten film laburren hautaketa zineman eta ikus-entzunezkoetan adituak diren hiru pertsonak osatutako batzorde batek gauzatuko du. Batzordeko idazkaria Ikus-entzunezko Proiektuen eta Digitalen Atala izango da.

Epaimahaiaren ebazpena apelaezina da.

Batzordeak eskabideak honako hautaketa-irizpide hauen arabera balioetsiko ditu:

- 1. Kalitate artistikoa:** 40 puntu, gehienez.
- 2. Kalitate teknikoa:** 20 puntu, gehienez.
- 3. Orijinaltasuna eta proposamen berriak:** 20 puntu, gehienez.
- 4. Nafarroako ekipo teknikoaren eta artistikoaren parte-hartzea:** 20 puntu, gehienez.

Gutxienez 50 puntu lortzen dituzten film laburrak baino ezingo dira hautatu.

Gutxienez hautatutako film laburren % 30ek emakumeek zuzendutakoak izan beharko dute.

Emaitzak parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaizkie bide elektronikoz, eta, era berean, komunikabideen eta sare sozialen bidez zabalduko dira.

HAUTATUTAKO PROIEKTUEN BETEKIZUNAK

Hautatutako film laburren arduradunek Navarra Shortzinemak ezarritako datetan aurkeztu beharko dute honako material hau:

- Fitxa tekniko eta artistiko osoa.
- Film laburra zer jaialditara aurkeztu den; jaialdien zerrenda eguneratua aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, lortutako sariak eta aukeraketak adierazi beharko dira.
- Film laburraren elkarrizketen zerrenda jatorrizko hizkuntzan, denbora-kodeekin.
- Film laburraren sei irudi (300 ppp-ko bereizmena).
- Film laburraren kartela (jpg, pdf), 300 ppp-ko bereizmena.
- Zuzendariaren biofilmografia.
- Zuzendariaren argazki bat (lan kolektiboetan, taldeko argazki bat).
- Ekoiztetxearen curriculum.
- Edukiz gero, film laburraren aurrerakina (HD 1920x1080, codec H264, mov edo mp4 formatuan).
- Edukiz gero, ICAAren kalifikazioa eta nazionalitate-zurtagiria.
- Katalogoaren promoziorako eskubideak lagatzeko dokumentua, Nafarroako kulturaren webgunean deskarga daitekeen eranskinaren arabera.

Navarra Shortzinemak azpтитuluen artxihoak eman ondoren, film laburren masterrak bidali beharko dituzte, azpтитuluekin, honako formatu hauetan:

- HD 1920x1080, codec H264, AC3 soinua, mov edo mp4 formatuan, jatorrizko bertsioan, azpтитuluak barne (artxiho bat hizkuntzako).
- DCP 2k stereo edo 5.1, azpтитuluak barne.

Hautatutako film laburren hasierako kredituetan agertu beharko da film laburra "Navarra Shortzinema: Nafarroako film laburren katalogoa"-ren parte dela, [Nafarroako kulturaren webgunean](#) deskarga daitekeen logoarekin batera.

HAUTATUTAKO FILM LABURREI BURUZKO AZKEN XEDAPENAK

Hautatutako film laburrak katalogoan eta Navarra Shortzinema reelean sartuko dira, eta jaialdi esanguratsuetan inskribatuko dira. Film laburren banaketa jaialdi horietan Navarra Shortzinemak egingo du.

[Katalogoa Kultura Departamentua - Vianako Printzea](#)

[Erakundearen](#) webgunean kontsultatu ahalko da.

Gainera, hautatutako film laburrak Nafarroako Filtotekaren programazioan zabaltzen saiatuko da (batez ere Filtoteka Nafarroan programaren bidez), eta beste katalogo autonomiko batzuekin batera antolatutako ekitaldi profesionalak.

Navarra Shortzinema komunikabideei haren katalogoko film laburrei buruzko informazioa banatzeaz arduratuko da, jaialdietako hautaketak, sariak edo bestelako aintzatespenak izan. Komunikazioak lanen ekoiztetxeekin eta zuzendariekin adostuko dira.